


E MAILA

ERREGINA ERREGEORDEA – ALDAMAR MULTZOA



Egilea eta data: Jose M^a Mujica; 1886

Deskribapena

Mehelin bidez lotutako 8 bizitegi eraikinek osatutako multzoa da, guztiak C babes mailakoak. Aldamar, Erregina Erregentea, Salamanka Pasealekua eta Etxague Jenerala kaleen artean kokatzen den bizitegi eraikinaren parte da. Jose Maria Mujica obra maisuak eraiki zituen eraikin horiek (10 etxetarako proiektu komuna zen). Xehetasun eklektikoak sartuta tradizio neoklasikoaren barruan, behe oineko lokalen, lau oinen eta mantsardaren tratamendu bateratuagatik nabarmentzen dira. Etxeetako batzuetan ondoren begiratokiak gaineratu dira.

“Erregina Erregentea – Aldamar” multzoaren babes erregimena

- * Ez dira jasodurak onartzen.
- * Ordenantza Partikularretan ezarritako irizpideekin bat datozen multzoko eraikinetako bakoitzaren berezitasunen kalterik gabe, multzoko eraikin guztiak tratamendu bateratua izango dute espazio publikotik ikus daitezkeen jardunei dagokionez, estalkietan eragina duten jardunak barne: koloreak, materialak, arotzeria, txapitulen antolamendua, eta abar.
 Testuinguru horretan, Erregina Erregentea 2, 3 eta 4 zenbakiak erreferentetzat hartuko dira multzoko eraikinen estalkien tratamenduari dagokionez, zehazki horien materialari dagokionez (teila gorria edo antzeko materiala, teila horrekin lotzen den irudia mantentzea eta zaintzea bermatuko duena).
 Finkatu egiten dira gaur egun balkoietan dauden burdineria modeloak.

Hauek dira multzoan barnean hartzen diren banako eraikin katalogatuak:

1.- Aldamar 2.....	C maila
2.- Aldamar 4.....	C maila
3.- Aldamar 6.....	C maila
4.- Erregina Erregentea 2.....	C maila
5.- Erregina Erregentea 3.....	C maila
6.- Erregina Erregentea 4.....	C maila
7.- Erregina Erregentea 5.....	C maila
8.- Erregina Erregentea 6.....	C maila